

Pruden Gartzia

Joxe Azurmendik Jaungoikoagan sinisten zuen?

Datu hutsetara joz gero, Joxe Azurmendi hamar urte zituela ailegatu zen Arantzazuko seminaria, aitaren borondate esplizituari kontra eginez. Hogeita hiru urte zituela ordenatu zen apaiz eta 1986 aldean sekularizatu zen, hots, berrogeita bost bat urte zituela (data zehatza ez dakigu). Alegia, hamahiru bat urtez seminarista eta hogeita bi bat urtez fraide. Ez dirudi frantziskotarrekin izan zuen harremana gaztetako episodio soil batera murriztu daitekeenik, edo besterik gabe ignoratu, gure artean sarritan egiten den bezala. Ez, askoz ere zentzuzkoagoa dirudi pentsatzea haren bizitzaren eta lanen gako nagusietako bat dela. Gertakari horren gainean hausnarketa labur bat plazaratu nahi nuke, besterik ez.

Horretarako, lehen unetik mamira joateko, galdera gordin bat paratu dut izenburutzat: alegia, sinisten ote zuen Jaungoikoagan?

* * *

Ezaguna denez, Azurmendik ez zuen batere maite bere buruaz hitz egitea. Pozik aritzen zen liburuez edota edozein gai literario, filosofiko edo sozialez hizketan, baina gutxitan bere bizitzaz edo sentimenduez. Hala eta guztiz ere, ez zuen gaia osorik saihesten, eta ez dira gutxi haren umezaroaz eta gaztaroaz han eta hemen egindako iruzkinak. Aitzitik, bere fraide-bizitzarekin lotutako konturik nekez aurkitzen duzu inon; soilik berariaz galdetzen zitzaionean, elkarrizketaren batean-edo, eta labur erantzun ohi du, uzkur, hori da behintzat nire inpresioa. Bere sentimenduei dagokienez, bereziki, bistan da ez zuela maite kalakan hastea.

Alde batetik, ez da batere arraroa: topikoa izan da esatea gizonezko euskaldunek zailtasun handiak dituztela (ditugula) beren sentimenduez hitz egiteko, eta Joxe euskaldun-euskalduna zen, erraietaraino. Alabaina, poesiak idazten zituen gaztetxotatik, eta gaztetan gitarra jo

eta kantuan ibili ohi zen, ikasle giroan; baina hori ere noizbait amaitu zen, poesiarena bezala, ziur aski. Ezer berezirik gertatu ote zitzaion, edo gaztaroa atzean utzita beste milaka laguni ere gertatu ohi zaion eboluzio arrunta da?

Edozein kasutan, ondorioa da guztiz gehienok ezagutu izan dugun Azurmendi *Azken egunak Gandiagarekin* liburuan agertzen dena dela: gai pertsonalenak tratatu behar dituenean ere (adiskidetasuna, heriotza) diskurtso intelektual oso sofistikatueta jotzen du, mila eta bat erreferentzia ematen dizkigu, baina bere sentimenduez ezer gutxi adierazten du, zeharka ez bada. Jainkoa, erlijioa, oso garrantzitsuak ziren berarentzat, Gandiagarentzat bezala, baina ziur aski beste modu batean.

* * *

Dena den, bada zalantza kanpoko kontu bat: Jaungoikoagan sinisten zuela apaiz ordenatu zenean eta fede erlijiosorik ez zeukala hil zenean. Beraz, noiz galdu zuen fede hori?

Nik neuk ez dakit. Badakit, ordea, ez dela ezinbestekoa aldaketa hori sekularizazioarekin lotzea. Izan ere, makina bat lagun ezagutu izan dugu apaiz izan ondoren sekularizatuak eta fedea bere horretan bizi izan dutenak. Joxeren inguruan bertan ez da batere zaila horrelako kasuak aurkitzea.

Hipotesi bat: Azurmendi 1936 aurreko giro erlijiosoan bizi izan balitz, ez zen inoiz ordenatuko, edo askoz ere lehenago utziko zuen apaizgoa. Hori da, hain zuzen ere, bera bezalako hainbat euskal idazleren kasua: Andima Ibinagabeitia, Lauaxeta, Orixe, Jokin Zaitegi bera... Baina Joxe Vatikano II.aren testuinguruan ordenatu zen, gako horien arabera garatu zuen bere fraide-bizitza, askatasun ia osoan. 1980tik aurrera, giroa aldatu eta eliz hierarkiak fraide bihurriak arrastoean sartzeari ekin zionean, frantziskotarretatik atera zen, horretarako beharrezkoak ziren legezko urratsak emanda.

Hipotesi horrek, jakina, haren biografia eta Elizarekin zeukan harremana argituko liguke, ez bihotzaren barrenean gertatu zen eboluzioa. Baina horretaz ez zigun batere argitasunik eman.

Bego haren bihotzean.